

V Ciclo “Musicando” / “Musiketan” V. Zikloa

Sarriguren (Valle de Egües-Eguesibar)

“MUSIKETAN” V. ZIKLOA

1.- Musikari behar duen lekua eman nahirik eta Ibarreko musikariei laguntzeko asmoz, Eguesibarko Udalak "Musiketan" V. Zikloa antolatu du.

2.- Musika mota orotako artista guztiek parte hartzen ahal dute (popa, rocka, jazz, elektronikoa, folka, hevya, kantautoreak, hip hopa, new age, funkya, fusioa edo teknologia berriak), baldin eta taldekide bat gutxienez Eguesibarren erroldaturik badago.

3.- Zikloa abuztuko ostegunetan izanen da, Ibarreko hainbat herritan. Kontzertu bakoitzak 90 minutuko iraupena izanen du gutxienez.

4.- Ekainaren 21a arte Eguesibarko Udaletxean (Sarriguren) ematen ahalko da izena. Eskabideari honako hauek atxiki beharko zaizkio:

- Taldearen txosten artistikoa.

- Kideen zerrenda, bakoitzaren NAN edo egoitza agiria jarririk.

- CDn grabatutako 2 pieza. Mp3 formatuan grabaturik badaude, helbide honetara igortzen ahalko dira:

cultura-kultura@egues.es

5.- Aurkezten diren taldeen artean Kultur Alorrak 4 hautatzeko proposatuko du, betiere arrazoiak emanik. Horiek izanen dira, hain zuzen, zikloan joko dutenak.

6.- Eguesibarko Udalak kontzertua ekoizteko eta egiteko gastuak ordainduko ditu

V Ciclo “Musicando” / “Musiketan” V. Zikloa

Sarriguren (Valle de Egües-Eguesibar)

(publizitatea, soinu ekipamenduak, teknikariak eta azpiegiturak). Taldearen musika-tresnak eta gainerako tresneriak jartzeko eta handik kentzeko lanak taldeek berek egin beharko dituzte.

7.- Eguesibarko Udalak 200 € ordainduko dizkio hautatutako talde bakoitzari, 800 € guztira. Zenbateko horri behar diren atxikipenak ezarriko zaizkio.

8.- Lanak aurkezte hutsak oinarri hauek onartzea dakar ezinbestean.